

1. Entzun ipuina eta gero zeuk irakurri.
Hitzaren bat ez baduzu ulertzen: **HIZTEGIA**. Elhuyar.com.

ALIZIA LURRALDE MIRESGARRIAN



Alizia lorategiko banku batean eserita zegoen eta, bat-batean, untxi bat ikusi zuen hau esanez:

-Ene, bada! Oso berandu iritsiko naiz!-
Eta lasterka alde egin zuen.

Alizia *zur eta lur geratu zen. Untxiak erlojua zuen eta hitz egiten zekien. Jaiki eta haren atzetik joan zen. Untxiari segika, *haitzulo batera ailegatu eta ate batekin topo egin zuen. Baina atea txiki-txikia zen eta Aliziak ezin zuen zeharkatu. Neskatoak pena hartu zuen, atearen bestaldean lorategi eder-ederra zegoelako.

Orduan, botila bat ikusi zuen mahai baten gainean. Eskuan hartu eta hau irakurri zuen: "edan nazazu". Eta Aliziak, irakurri eta egin: botila erdia edan eta, berehala, txikitzen eta txikitzen hasi zen, katakumeak bezain txikia egin arte.

-Hau poza! -Esan zuen Aliziak-. Lorategian sartu ahal izango naiz orain!

Baina ateko giltza mahai gainean zegoen eta, Alizia, hain txikia izanik, ezin zuen hartu.

Orduan pastel bat ikusi zuen. Hurbildu eta hauxe irakurri zuen: "Jan nazazu". Eta irakurri eta egin: zati bat jan eta berehala, handitzen eta handitzen hasi zen, erraldoiak bezain handia egin arte. Alizia negarrez hasi zen eta putzu ikaragarria egin zuen. Hain ziren malkoak handiak! (...)

Bat-batean: Danba! Esnatu egin zen! Amets bat izan zen!

Idazlea: Lewis Carrol.
"Alizia Lurralde Miresgarrian" (moldatua)

HITZ BERRIAK: *Zur eta lur → Oso harrituta.
*Haitzuloa → Kobazuloa.

ERANTZUN GALDEREI:

1. Osatu esaldiak falta diren hitzekin. Bilatu ditzakezu testuan.



Hasieran, Alizia _____ko jarleku batean eserita zegoen.



Zur eta lur geratu zen: untxiak _____zuen eta _____zekien.



Aliziak _____ri jarraitu zion.

2. Klikatu erantzun zuzenaren zenbakia.

Zergatik zeharkatu nahi zuen Aliziak atea?

1. Ikusezina izan nahi zuelako.
2. Atearen bestaldean lorategi ederra zegoelako.
3. Gose handia zeukalako.

3. Aukeratu egia ala gezurra den.

E G

Aliziak botila edan eta handitu egin zen.

Aliziak pastela jan eta handitu egin zen.

Aliziak botilako edan eta txikitu egin zen.

4. Osatu esaldia falta diren hitzekin.

 Aliziak txikiagoa izan nahi zuen, _____an
sartzeko.

 Aliziak handiagoa izan nahi zuen, mahaiaren _____
zegoen giltza hartzeko.

5. Sartu zen, azkenean, Alizia lorategian?

Bai.

Ez.